


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Jende guztiak daki bezeroak direla enpesei bizia ematen dietenak eta horiek gabe ezingo litzatekeela ezer egitera iritsi. Hori dela eta argi utzi behar dugu pertsona partikularrak ez direla bezeroak izango, erabiltzaileak baizik. Gure takilak enpresa edo erakunde handientzat daude pentsatuta eta batik bat 13 urtetik gorako erabiltzaileentzat.

Gure enpresaren bezero profila udalak dira gehien bat baina ez dizkiegu atearik itxiko beste erakunde edo enpresa batzuei, hauentzat ere baliagarriak izan daitezke eta. Udalak herritarrentzat jarriko ditu takilak, behar baldin badituzte, eta horretarako Urretxuko Udalak, adibidez, galdeketa bat egin zien herritarrei. Hauek izan ziren ateratako emaitzak:



Grafikoan ikusten den bezala, biztanleriaren gehiengoak takilak herrian ipintzearen alde daude, % 67,3 hain zuzen ere; ezetz esan dutenak %26,6 izan dira berriz eta %9,1 berdina zaie.

Bezeroarekiko harremanaren inguruan, udaletara joango gara gure produktua eskaintzera eta bi zerbitzu gehitzeko aukera izango dute: takilak pertsonalizatzea eta mugikorra kargatzeko tramankuluarena. Hauek kontutan izan beharko dute honek takilaren prezioa igotzen dutela.

